


GOITUR EGITASMOA 2025

-Helburuak eta ekintzak-

GOITUR-EN EGITASMOA 2025

2025erako helburu nagusiak

- Goierriko industria turistikoaren antolakuntza eta gobernantza (eskaintza): Goierri, Helmuga Turistiko Adimenduna izateko ekintzak garatzea, Goitur-ek 25 urte betetzen dituen urte honetan eta 2030 egitasmo estrategiko berriaren laguntzarekin.
- Goierriko produktu turistikoaren dinamizazioa (eskaintza): natura eta gastronomiazko produktu turistikoak eta zerbitzuak egonkortu eta "Idiazabal Lurraldea" eta "Basque Highlands" ekimenak sendotzen jarraitzea kulturarekin batera.
- Goierriren promozioa eta komertzializazioa (eskaera): produktu eta bisitari mota desberdinei egokitutako promozioa lantzea errezeptibo eta erakunde desberdinekin elkarlanean, eta Europako eta Estatuak sare turistiko desberdinetaz baliatuz.



Horretarako, Goitur-en kudeaketaren inguruan garatuko diren 3 ardatzak honako hauek dira:



Lehiakortasuna

Helmuga Turistiko Adimenduna eta kode etikoaren inguruko programak biltzen dira hemen, hala nola, Goitur-en barne eta kanpo kudeaketa erakunde publikoekin (Eusko Jaurlaritza, Basquetour, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udaletxeak, etab.), baita bazkide pribatu eta kanpoko beste turismo erakundeekin harremanak ere, gobernantza azken finean. Aurten, Goitur-en 25. urteurrena baliatuz, itun berriak lotuko ditugu erakunde desberdinekin.

Produktu-Zerbitzuak

Ardatz honetan, Goierri eskualdearen garapen turistikorako behar diren tresna, produktu eta zerbitzu guztiak biltzen ditugu: MICE, gastronomia, natura, turismo familiarra, turismo industrial, ekoturismoa, senderismoa, zikloturismoa, touring, confidential, kultura eta Santiago Bidea.

Promozioa eta komertzializazioa

Hirugarren ardatz honetan, aurreko bi ardatzetan egiten denaren hedapena eta "salmenta" garatzen da.

Lehiakortasuna



Lehiakortasuna -> Gobernantza

- Goitur-en barruan dauden bazkide eta Udalerriei gure aholkularitza eskainiko zaie, beraiek beharra duten ataletan:
 - Eusko Jaurlaritza edo Foru Aldundiarekin kontaktuak.
 - Subentzio eta dekretuen epeak.
 - Udaletxeekin bitartekaritza sektore pribatuarekiko.
 - Pribatuek negozioa handitu behar dutenean eskaini beharreko aholkularitza edota, hainbat erakundeekin harremanetan jartzerakoan behar duten informazioa.
- Foru Aldundiko "Elkar-EKIN Lanean" egitasmoan parte hartuko dugu eta ostalaritzara zuzendutako ikastaro bat jarriko da martxan, sukaldaritza eta bertako produktu gastronomikoei dagokiona.
- Turismo egonaldien zerga berriaren inguruan sortuko diren mahai eta bileretan parte hartzea eskatuko dugu, jasotakoaren itzulera zuzena bermatzeko helburuarekin sektore turistikoaren mesedetan.

- Goitur-ek 25 urte betetzen dituen urte honetan, urtemuga hau baliatuko dugu Goierriko turismoa indartzeko:
 - Turismo sektoreko erakundeekin itun berriak aztertuko ditugu.
 - Turismoarekin zeharkako erlazioa duten erakundeekin harremanak sendotuko ditugu: Merkatal Ganbarak, Euroeskualdea,...
 - Promozio ekintza asko urteurrenarekin lotuko ditugu.
 - Basquetour-ek edo Foru Aldundiak antolatzen dituzten jardunaldiren bat Goierriira bideratuko dugu.
 - Ate irekiak izango dira goierritarrentzat eskualdeko museo eta interpretazio zentroetan.
- Banakako edo azpisektore bezala antolatuta dauden taldeei aholkularitza berezia eskainiko zaie bazkide bakoitzaren beharrei erantzun ahal izateko.
- Eskualdean negozio turistiko berriak eratu nahi duenarentzat aholkularitza eskainiko zaio.
- Programa Europearretan parte hartzea areagotzen ahaleginduko gara EDEN programari esker; “Your Eden Experience” lantaldea eta “Europeans Best Destinations” sareko partaide berri bezala, gainontzeko bazkideekin harremanetan egongo gara eta **visit.europe** webgunean ikusaraziko dugu Goierriko informazioa.
- Estatuko Turismo Idazkaritza eta Turespaña-rekin etengabeko harremanetan egongo gara marketing turistikoari dagokionean, baita Espainiak mundu guztian zehar dituen turismo bulegoekin ere.
- Goimen-ekin elkarlanean, turismora salto egin nahi duten lehen sektoreko ekoizleei aholkularitza eskainiko zaie beraien produktuen dibertsifikazioa aurkitu asmoz.
- Goierriko Udaletxeetako komizioetan parte hartzen jarraituko dugu, bertako turismo alorrean aholkulari lanak eginez.
- Industria turistikoak dakartzan onurak herritarrei helaraztea eta urteko ekintza eta ekimen guztiak komunikatzea gardentasunean oinarrituz.
- Turistentzat Laguntza Zerbitzua (TLZ) deiturikoa mantenduko dugu turismo bulegoen ordutegitik kanpo: turista eta bisitarientzako “Call Center”a.
- Goierriko industria turistikoaren 2030 egitasmo estrategikoak biltzen dituen irisgarritasunari buruzko ataleko ekintzak aztertzea eta eskualdez gaindiko erakundeekin elkarlana sustatzea.
- Goierriko turismo jasangarriaren egitasmo estrategikoko ekintza desberdinen jarraipen adierazleak monitorizatu eta aztertzea.

- Euskadiko eta Gipuzkoako behatoki turistikoeekin harremanetan egongo gara Goierriko edozein informazio behar dutenean, batez ere, eskari turistikoa online kanaletan monitorizatu behar denean bisita turistikoa aurretik, bitartean eta ondoren emandako edukiak eta iruzkinak ezagutzeko orduan.
- SEGITTUR-ek bultzatuta, Goitur-ek dagoeneko parte hartzen duen Estatu mailako hiru lantaldeetan lanean jarraituko du: lehen sektorea eta turismoa, landa turismoa eta kirol turismoa.

ÍNDICE DE EXPERIENCIAS

#1 - May 10 Aprender a ser granjero Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#2 - May 10 Descubre la huerta de Sancho D. E. Elorrieta Irujo, Navarra	#3 - May 10 Una aventura por el mundo de la sidra y el queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#4 - May 10 Mundo de sidra y queso: un mundo de sabores y tradición Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#5 - May 10 Tour e-tour D. E. Elorrieta Irujo, Navarra
#6 - May 10 Taller de cocina con miel Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#7 - May 10 Cereza, un tesoro Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#8 - May 10 Una huerta con queso y sidra Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#9 - May 10 Experiencia sidra y queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#10 - May 10 Cideros para aprender a sidrar Irujo, Navarra Irujo, Navarra
#11 - May 10 Quesos artesanales de queso DOP Idiazabal Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#12 - May 10 Visita guiada al valle ecológico y la almazara con catamandado de aceites Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#13 - May 10 Fiesta del Jaiako Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#14 - May 10 Experiencia sidra y queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#15 - May 10 Sidra y queso en la tradición Irujo, Navarra Irujo, Navarra
#16 - May 10 Sensoreo y la salud Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#17 - May 10 Alberca Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#18 - May 10 Tour de los sidreros Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#19 - May 10 Los frutos ecológicos Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#20 - May 10 Visita y taller de sidra Irujo, Navarra Irujo, Navarra
#21 - May 10 Concierto en honor al queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#22 - May 10 El queso del queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#23 - May 10 Sidra Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#24 - May 10 La ruta de la sidra Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#25 - May 10 Catal del queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra
#26 - May 10 Visita guiada y catamandado Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#27 - May 10 El queso del queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#28 - May 10 Visita a la huerta y taller de sidra Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#29 - May 10 Paseo por un queso ecológico Irujo, Navarra Irujo, Navarra	#30 - May 10 Experiencia sidra y queso Irujo, Navarra Irujo, Navarra

Distribución geográfica

- SEGITTUR-en bidez, Turismo Ministerioak martxan jarriko dituen plan pilotu, sare, lantalde edo ekimen berri guztietan parte hartuko dugu, Goierriko industria turistikoa sendotu eta eskualdeak dituen errekurtso turistikoa desberdinak produktu turistikoa bihurtzen jarraitu ahal izateko.
- Euskal Fondoak Erakundearekin elkarlanean, El Salvador-eko Sonsonate Departamentuan kokatuta dagoen Los Izalcos eskualdearen garapen turistikorako egitasmoa lantzen lagunduko diegu. Gauza bera egingo dugu, Foru Aldundiko Nazioarteko Lankidetzako Zuzendaritzarekin elkarlanean, Guatemala-ko Huehuetenango Departamentuan dagoen Territorio Huista eskualdearekin aurrera eraman nahi dituzten hainbat egitasmo turistikoei lagunduz.

Lehiakortasuna -> Helmuga Turistiko Adimenduna

- Goierriko industria turistikoaren 2030 egitasmo estrategikoan azaltzen diren ekintza desberdinak garatzen jarraituko dugu: egitasmoak jasotzen dituen eta lehen urte mugarako identifikatuak dauden atal desberdinetako ekintzak lantuko ditugu, jarraipen adierazle guztiak kontutan hartuz.
- HTA sareko kudeatzaileen VII. topaketan parte hartuko dugu, sare hau osatzen dugun helmuga turistiko desberdinen esperientziak ezagutu eta elkar trukatzeko helburuarekin.



- Euskadin sortuko den ekosistema turistiko adimenduneari parte hartuko dugu ondorengo hiru zutabe hauekin uztartuta: helmuga turistiko adimendunaren metodologia (HTA), enpresa turistiko adimendunaren eredia (ETA) eta adimen turistikoaren sistema (SIT Euskadi).
- SIT Gipuzkoaren bidez, Goierriko eskaintza eta eskaeraren egoeraren azterketa landuko da, ondorengo erabakiak hartu ahal izateko.
- Turismorako Euskadiko Kode Etikoaren programarekin ere jarraituko dugu: lanean diharduten enpresei jarraipena egingo zaie eta auditoria gainditzeko aholkularitza eskainiko zaie, hau da, formazioa, banakako bilerak eta memoriaren elaborazioa.


Lehiakortasuna -> Turismo Mahaiak

- Turismo Mahaia bizpahiru aldiz bilduko da, urtean zehar sortzen diren egitasmo berriei erantzuna emateko helburuarekin.



- Azpisektore bezala antolatuta dauden taldeekin mahaiak antolatuko dira.
- Basquetour-eko plan zuzentzaile guztiak kudeatzen dituzten arduradunekin eta Zuzendariarekin bilduko gara Goierriren posizionamendua indartuz.
- Urtean zehar Gipuzkoako Turismo Mahaiaren deialdi guztietara joango gara Gipuzkoako promozio turistikorako egiten diren ekimen guztietan parte hartuko dugularik.
- Basquetour-eko lurralde antolaketarako sailarekin Goitur-eko kudeaketa eredua sendotuko dugu eta gure publiko-pribatu izaeraren berezkotasuna posizionatuko dugu Eusko Jaurlaritza eta Basquetour-en aurrean.

Produktu-Zerbitzuak




Produktu-Zerbitzuak -> MICE (Meetings, incentives, conventions and exhibitions)

- Kongresu, batzar eta bileretako egitasmoan oinarriturik, bertan sartzen diren egoitzekin elkarlanean jarraituko dugu: Beasaingo Udala-Igartza Jauregia, Ordiziako Udala-d´Elikatuz, Goimen-Zaldibiako Goizane eraikuntza eta zenbait hotel eta jatetxe.
- Goitur, Goierri Valley elkarteko bazkide egin ondoren, elkartearen bidez, eskualdeko enpresa nagusienetan Goierri-ko errekurtsio eta zerbitzu turistikoko guztien berri emango da urtean zehar.



- Basquetour-ekin elkarlanean jarraituko dugu MICE programari jarraipena emateko eta beraiek parte hartzen duten ekintza eta azoka guztietan parte hartzeko tresnak sortu eta garatuko ditugu: kongresuen antolatzaile eta errezeptiboekin fam-trip-ak eta workshop-ak antolatuko dira.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak MICE programaren barruan aurrera eramango dituen ekimenetan parte hartuko dugu.
- MICE programan jatetxeak sartu ondoren, online egingo den promozioan parte hartuko dugu Basque Events plataformaren bidez.



- MICE segmentuan lanean has daitezkeen zerbitzu turistikoari informazioa eta aholkularitza eskainiko diegu.

Produktu-Zerbitzuak->Gastronomia #idiazaballurraldea

- Gastronomiazko egitasmoa garatzeko, Euskadiko gastronomia plana hartuko dugu oinarritzat: "Goierri Gastronomia" produktu klubari jarraipena emango zaio eta bertan dauden kideekin elkarlanean arituko gara.
- "Idiazabal Lurraldea" marka sendotzeari jarraipena emango zaio, besteak beste, "Idiazabal Gaztaren ibilbidea" osatuz eta sendotuz: GR 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbidea, produktu kluba garatzen eta hobetzen jarraituko dugu.
- Europako "Your Eden Experience" lantaldea eta "Europeans Best Destinations" sareko partaide bezala, Goierriko produktu gastronomikoak bertan txertatuko ditugu.
- Landa eremuko produktu gastronomiko desberdinekin erlazonaturiko eragile pribatuekin harremanetan egongo gara aholkularitza eskaintzeko helburuarekin beraiek eskatzen dutenean, hau da, bisitak antolatzeko orduan edo produktu eta pakete turistiko berriak sortzeko garaian.
- Lehen sektoreko ekoizle eta hauen produktu gastronomikoen mapa osatzen jarraituko dugu.

betiko GOIERRI dastatu

GAZTA QUESO

QABIRIA

01 BAZTARRIKA Ugarana Goikoa 12
943 853 054
www.baztarrika.com

IDIAZABAL

02 ARANBURU Ondramulho Baseria
628 15 125 / 649 655 962
www.quesosaranburu.com

03 GAZTAÑADIKULO Diseminatua 149
618 72 1473
www.gaztanadikulo.com

04 GOIBURU Bikuha kalea 10
640 387 380

LAZKAO

05 INTZARTZU Intzartzu baseria
943 850 650 / 629 387 945
mailto:info@intzartzu.com

06 IXIDRO GAZTAK Borda berri artegia
646 697 250
@borda.berri

MUTILOA

07 TELLERIA Odo baseria
635 208 220
www.telleriegaztak.com

ESNEKIAK LÁCTEOS

LAZKAO

10 ITZUETA Itzuela azpikoa
Lazkao (907 947 173)
Saitzeko makinak | Miquinas
expedicionari
Beasain, Lazkao eta Ordizia
www.itzuela.es

OLABERRIA

08 BEHIEKO Etxeberri Goikoa
699 203 321
www.behiekogaztak.es

ESZTIA MIEL

ATAUN

33 GOZATU

OLABERRIA

08 AIZPEA GAZTA Intarte Baseria
635 747 970
aizpeegazta@gmail.com

09 BEHIEKO GAZTAK Etxeberri Goikoa
699 203 321
www.behiekogaztak.es

10 TXOKO GAZTA Aberoa baseria
943 100 140 / 615 701 137
txokogazta@gmail.com

ORDIZIA

11 OTATZA Otatza Baseria
661 923 670 / 943 587 077
josebasasua@gmail.com

SEGURA

12 ONDARRE Ondarre baseria
943 301 664
ondarreseguraz@gmail.com

ZERAIN

13 ARBELAR GAZTA Otatza 7
607 742 709 / 637 585 227

14 BASAZABAL Barbari auzoa 63
943 800 483

15 GAROA Otatza auzoa 1
652 738 291
@garoakartea

HARAGIA CARNE

MUTILOA

16 GOIEKO Odo baseria
605 206 220

OLABERRIA

17 BORDA Eldotsaga Borda
600 988 606
info@baserritara.com

18 GOIEKO Etxeberri Goikoa
699 203 321

SEGURA

19 GOIEKO Lizardi baseria
San Vicente 652 719 524

ZERAIN

20 GOIEKO Mendarte baseria
@mendarte.baseria

21 LUMAGORRI
943 800 161
www.lumagorri.es

GETARIKO TXAKOLINA

OLABERRIA

40 BENGOTXE Gainera 10
943 884 955
info@txakolinabengotxe.com

GARAGARDOA CERVEZA

LAZKAO

41 BASABE Hiribarnen atze kalea 1
688 634 266
@basabe_garagardoak

OGIA PAN

BEASAIN

27 JULKI GOZOGINTZA
Kale Nagusia Kalea, 11
943 688 237

LAZKAO

28 ASTIGOXO GOZOGINTZA
Hiribarnen atze kalea 1
613 101 019

29 OREKA OKIND. Lazkao biki plaza 1
943 097 334
@orekakokindegia

ORDIZIA

30 GARIN OKINDEGIA
613 032 402
@garin_okindegia

BARAZKIAK ETA BASERRIKO PRODUKTUAK
HORTALIZAS Y PRODUCTOS DEL CASERIO

ALTZAGA

22 ARTZABALAZTA Altzagako bidea 2
665 749 137
@artzabalazta.baseria

ZEGAMA

25 ALTZIBAR Altzibar baseria
690 296 767

ZERAIN

23 SUKI Sukitxamendi baseria
@sukitxamendi.baseria

24 SALTAMENDI Gudugarreta 8
651 560 729

GOIERRIKO EKOIZLEAK

PRODUCTORES DEL GOIERRI

Ecologistas biziola
Biziola en Bizia

- Esperientzia gastronomikoak errezeptibo eta bidaia agentzien beharretara egokituko ditugu.
- Eskualdeko Biziola Kooperatibarekin harremanetan jarraituko dugu jasangarritasuna eta produktu gastronomikoen promozio alorretan bereziki.
- Esperientzia turistikoa gastronomiko berriak diseinatzen eta garatzen jarraituko dugu produktu gastronomiko berriak txertatuz.
- EDEN sarea osatzen duten helmuga gastronomiko desberdinekin elkarlana eta ezagutzua areagotuko da.
- BCC-k gidatzen duen Turismo Gastronomikorako Masterrean parte hartuko dugu irakasle gisa.



Produktu-Zerbitzuak -> Natura #basquehighlands

- Goierriin ospatzen diren kirol froga garrantzitsuenen babeslegoa eskaintzen jarraituko dugu (gau kopuruen igoera suposatzen dutenak):
 - Zegama-Aizkorri mendi maratoia eta kilometro bertikala
 - Ultratrail Ehunmilak, Goierriko Bi Haundiak eta Mari Murumendi maratoia
 - Rogaine eta orientazio txapelketak
 - Ordiziako Nazioarteko Igeriketa Txapelketa
 - Ordiziako Meeting proba
 - UCI mailako Gipuzkoa Klasika proba
 - Goierriko martxa zikloturista.
- Zegaman kokatua dagoen Euskal Herriko Trail Estazioaren kudeaketa eta dinamizazio berriari hasiera emango diogu Sakana eta Baigorriekin batera.
- Zikloturismoaren inguruko produktu turistiko berriak bultzatuko ditugu eskualdeko Erronka klubarekin eta Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioarekin elkarlanean arituz.
- Bizikletaz nahiz oinez egiteko ibilbide berriak diseinatzen jarraituko dugu geroz eta aukera gehiago izateko gure webgunean bereziki.
- GR 283 edo Idiazabal Gaztaren Ibilbideko webgune eta pakete turistikoaren aurkezpenak egingo dira errezeptibo eta kazetari desberdinekin.
- Euskadiko bidaia agentzia eta errezeptibo desberdinen eskutik, Europako azoka espezializatuetara joango gara beraiekin sinaturik ditugun hitzarmen desberdinei esker.
- Aisialdia eta naturarekin erlazionaturiko produktu turistiko berriak garatuko dira familientzat.



- Landa turismoaren inguruko eskaintza turistikoa berria sendotzen jarraituko dugu, errekurso eta produktu turistikoa honen inguruko estrategian sakontzeko helburuarekin.

Produktu-Zerbitzuak -> Kultura

- Santiago Bidea: bere beharrak eta hobekuntzarako ekintzak aztertuko ditugu, Basquetour-ek horretarako deitutako bileretan eta beraien bulego teknikoaren bidez.
- Goierriko Meatze Gunea dinamizatu eta promozionatzeko urrats berriak emango dira promoziorako tresna desberdinak garatuz.



- Turismo Industrialari buruzko egitasmoa lantzen jarraituko dugu Plan Zuzentzaileak finkatzen dituen ekintzak martxan jarri eta Europako ERIH Sarearekin elkarlanean promozioak landuz.


- Eskualdeko azpiegitura turistikoekin promoziorako ekintza berriak adostuko dira agenda bateratuak antolatu, ekipamenduen arteko loturak sendotu eta pakete turistiko berriak egitearekin batera.
- Euskadi Basque Country Grand Tour egitasmoaren barruan komunikaziorako eta promoziorako euskarri berriak garatuko ditugu Basquetour-ekin elkarlanean.
- Euskadiko top baliabide turistikoen “Euskadi Confidential” sarearekin elkarlanean, sarean parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten zerbitzu eta ekipamendu berriak sartzen ahaleginduko gara.

**SUGE
REN
CIAS**

-
Enogastronomía

Territorio Idiazabal



📍 Ordizia




Oficina de Turismo:
 Barreneetxe Etxea
 Santa Maria kalea, 24
 20240 Ordizia, Gipuzkoa
 T. (+34) 943 88 22 90
 turismo@ordizia.eus


www.delikatuz.com
www.goierriturismo.com

Territorio Idiazabal es tradición y gastronomía en el corazón de Euskadi, una experiencia auténtica y 100% local, combinando naturaleza, gastronomía y cultura en el interior del país: conocer el mercado de Ordizia -que se celebra cada miércoles desde 1512-, recorrer la villa medieval de Segura, descubrir la elaboración del queso D.O. Idiazabal, disfrutar una cata maridaje de txakoli D.O. Getaria y queso Idiazabal (dos productos emblemáticos de Euskadi)... Una inmersión en la Euskadi auténtica.



Promozioa eta komertzializazioa



Promozioa eta komertzializazioa -> Argitalpenak

- Goierriko mapa turistikoa eta mapa gastronomikoa berargitaratuko ditugu.
- Basque Highlands mapa kaleratuko dugu hizkuntza desberdinetan.
- Goierriko eskaintza turistikoa liburuxka berargitaratuko dugu bi bertsiotan eta lau hizkuntzatan.
- GR 283 Idiazabal Gaztaren Ibilbidearen mapa eta Goierriko Meatze Guneko mapa argitaratuko dira; museo eta IZ guztiekin batera egindako eguneko taldeentzako ibilbideen gida zabalten jarraituko dugu.

Promozioa eta komertzializazioa -> Publizitatea eta Branding-a

- Off-line publizitatea egiten jarraituko dugu estrategikoak iruditzen zaizkigun medioetan, batez ere gastronomia eta naturarekin erlazioa dutenetan hain zuzen ere.
- Baliabide eta kanpaina turistikoaren diseinua: urteko garai jakinetan kanpainen bidez jakinarazi beharreko edukiak prestatuko ditugu, egitasmoak planifikatuko dira, behar diren materialak garatuko dira eta euskarrien plangintzak zehaztuko dira.
- Bi Parke Naturaletako bideoak grabatuko ditugu ondorengo promozioetan erabili ahal izateko.
- Donostiako material promozionalean Goierriko publizitatea txertatuko da euskarri desberdinak erabiliz (paperezko gida turistikoa eta webguneko promozioa, biak sei hizkuntzatan), eta Donostiarekin egingo den promozioak indar eta garrantzi gehiago hartuko du turismo bulego berriarekin.
- Bilbon, Aste Santuan ospatzen den BasqueFEST azokan parte hartuko dugu bederatzigarren aldiz; bertan, sagardoa eta gaztaren katak egingo ditugu.
- Goierriko turismoaren promozioarekin jarraituko dugu Araban, udaberriko eta udazkeneko aste bukaerei begira, Gasteiz Hoy aldizkari digitalaren bidez.



gasteiz hoy VITORIA-GASTEIZ ▼ ÁLAVA ▼ SUCESOS ▼ DEPORTE ▼ OCIO GASTEIZ ▼ SERVICIOS ▼ PUBLICIDAD

el poder eres TÚ

🏠 > Patrocinado >

4 planes para conocer el Goierri en primavera

Patrocinado - 22 abril, 2024

Disfruta del queso, la orientación, el mercado de Ordizia o los paisajes naturales de Zerain

f X ✉ 📱 ↻

Llega la primavera y es momento de coger oxígeno con planes novedosos. Una época del año perfecta para hacer turismo de cercanía. Puentes como el de San Prudencio o fines de semana para desconectar de la rutina diaria y conocer la **gastronomía, naturaleza y cultura del Goierri**. Un paraíso que miles de alaveses disfrutaron a tan solo 45 minutos de Vitoria. ¡Te toca a ti!

Vivir la naturaleza de las Basque Highlands en primavera es algo que tienes que probar. La Feria del Queso de Idiazabal y el mercado de Ordizia dan el pistoletazo de salida a los **planes de primavera**. Pero también hay tiempo para conocer todos los rincones del Goierri con paseos y juegos familiares entre sus montañas. Toma nota de estos **cuatro planes para disfrutar de la Euskadi más rural**.

PUBLICIDAD

PUBLICIDAD

PUBLICIDAD

lo + leído

Últimas horas de inscripción a los cursos de los centros cívicos 2024-25

- Bizkaiko komunikabide garrantzitsuenetako kazetariekin bi eguneko press-trip bat antolatuko dugu Goierri zehar, ondoren gure eskualdea promoziona dezaten.
- ZUM gidak argitaratzen dituen Goierriko Gida, Ondo Jan eta Donostia Aisia gidetan eskualdeko informazioa eta publizitatea txertatuko da urteko ale guztietan.
- Naturari lotutako produktu turistikoak zuzenduta, aldizkari espezializatuetan Goierriko erreportajeak sartuko ditugu.



- Radio Euskadi eta Radio Vitoria irrati-tan emititzen den “La Ruta Slow”eko programan, udaberria eta udazkenean zehar, eskualdeko azoka gastronomikoen berri emango da programa desberdinetan.
- Nekatur, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen webgunean, Goierriko banner bat txertatuko dugu urte guztirako.
- Donosti City, eta Carlos Bengoa kazetariaren eskutik, urte guztian zehar Goierriko produktu turistiko eta herri desberdinak promozionatuko ditugu sare sozialen bidez.

- Tour Magazine taldeak argitaratzen dituen Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Errioxako aldizkarietan Goierriko erreportaje bat txertatuko dugu udako zenbakian.
- ETB-ko sare sozialen bidezko promozio digitala egingo dugu udazkenean zehar; Euskal Herriko merkatu nitxora joko dugu zuzenean Goierriko udazkeneko azoka eta ekitaldi desberdinak promozionatuz.
- Goierriko udako agendaren egituraketa eta promozioa egingo dugu eskualdera udaran datozen bezeroek eskaintza zabala izan dezaten.
- Nazioarteko gida turistikoek argitaratzen dituzten liburuak osatuko ditugu Goierriko eskaintza turistikoarekin, editorial hauekin harremanak dituzten kazetariekin sinaturiko akordioei esker: Michelin, Morellini, Bradt, Conde Nast Traveler, Anaya Touring, Lonely Planet eta National Geographic adibidez.

Promozioa eta komertzializazioa -> Goierri-trip

- Eskualdea erakusteko helburuarekin bisita mota desberdinak antolatuko dira urtean zehar erakunde desberdinekin batera:
 - Abian dauden pakete turistiko desberdinak komertzializatzeko errezeptibo eta touroperatzaileekin egingo diren fam-trip-ak.
 - Ohizko publizitatea ordezkatzeko duten kazetarien bisitak edo press-trip-ak, gastronomia eta natura ardatz hartuta prestatuko diren blogari esanguratsuenen egonaldiak edo blog-trip-ak.
 - Goierri buruzko informazio turistiko osatuago bat edukitzeko helburuarekin antolatuko diren beste destinoetako informatzaileen eta alojamentuen info-trip-ak.
 - Euskadin eta Estatuan zehar lan egiten duten “freelance” gida turistikoekin fam-trip-ak antolatuko ditugu beraien ibilbideetan Goierri sar dezaten.

Promozioa eta komertzializazioa -> Turismo azokak

- Fitur, IBTM, Basquefest, Expovacaciones, Seu d'Urgell-eko azoka, Vic-eko Fira de la Muntanya eta Intur azoketan izango gara aurten.
- Atzerrian ospatzen diren azoketan, Goierriko informazioa zabalduko da Turespaña, Donostia Turismo eta Basquetour-en bidez: Utrecht, Dublin, Bruselas, Munich, Mosku, Paris, Berlin, Hanburgo, Lisboa, Oporto, Viena, Cannes, Tokio eta Londres.
- Basquetour-en bidez, ondorengo nazioetako helmuga anitzeko jardunaldietan parte hartuko du Euskadik, eta fam-trip edo press-trip hauek antolatuko dira: Argentina, Kolonbia, Txile, Belgika, Estatu Batuak, Polonia, Turkia, Italia, Suedia, Suitza, Danimarka, Frantzia, Italia, Irlanda, Portugal eta Erresuma Batua.



Promozioa eta komertzializazioa -> Goierri Digitala

- **goierriturismo.com** webguneari dagokionez eraldaketa handi bat egingo da diseinuan, hau da, webgune berri baten itxura hartuko du. Webgune berri hau azkarragoa izango da eta erabat irisgarria izango da, gaur egungo irisgarritasunaren baldintza guztiak betez.
- Webgunearen posizionamendua hobetzen jarraitzeko, Adimen Artifiziala erabiliko dugu jendeak zer nolako informazio mota eta nola bilatzen duen jakiteko; horrela, webgunean dagoen edukian egin behar diren aldaketak egingo ditugu.
- Facebook, X, instagram eta youtubeko publikazioak hobetu egingo ditugu, sare sozialetan aditua den enpresa baten laguntzaz.



- Facebook eta Instagram sareetan ordaindutako kanpainak egingo dira Programatikaren bidez, guk zehaztutako urte sasoiari eta guk aukeratutako nitxo desberdinei zuzendutakoak.
- Turismo sektorean gertatzen diren berrikuntzen etengabeko prospekzioa egiten jarraituko dugu; turismo mailan internetak eta teknologia berriek duten ahalmena ikusita, etengabeko jarraipena egingo dugu sektoreko berrikuntzak gure eskualdean ezarri ahal izateko.
- Erabiliko ditugun hashtag-ak definitu eta gero, publikazio guztietarako erabiltzen jarraituko dugu: #goierriIN #basquehighlands, #territoriodiazabal eta #idiazaballurraldea. Hala nola #goierri bezalako beste etiketa batzuk ere erabiliko dira; honela, hitz hauei geroz eta lotuago egongo gara.

Promozioa eta komertzializazioa ->

Komertzializazioa

- Fam-trip-ak antolatuko ditugu Foru Aldundia, Basquetour eta Donostia Turismoarekin, touroperatzaile eta errezeptibo desberdinak erakartzeko asmoz.
- Euskadiko, Estatuko eta Nazioarteko errezeptibo desberdinekin harremanetan jarraituko dugu Goierriko txangoak sal ditzaten, pakete turistiko bateratuak antolatuz helburu horretarako.
- Donostiak bultzaturiko txartel turistikoan Goierriko ekipamendu desberdinak sartuko ditugu eta elkarlana bultzatuko da.
- Donostiako turismo bulegoetako informatzaileekin eta alojamenduekin bilerak egingo ditugu urtean zehar Goierriko informazio turistikoa helarazteko harrera guneetan dagoen pertsonalari.